

2009/10/10

Artearen eta Bakearen topaketek bederatzi artista batuko dituzte hiru egunez

Beste behin ere, urriaren erdialderako Bakearen Museoak, Gernika Gogoratuz bakearen aldeko aztertegiak eta kultur etxeak Artearen eta Bakearen Nazioarteko Topaketak antolatu dituzte. Aurtengoa topaketen laugarren edizioa da, eta gatazka arteko artea izango da jorratuko duten gai nagusia.

Topaketak urriaren 15ean hasi eta 17an bukatuko dira. Hala ere, horiekin batera antolatu duten kultur ekitaldien egitaraua beste egun batez luzatuko dute.

Atzo egin zuten jardunaldien aurkezpena, Bilboko Ertzilla hotelean. Oraingoan antolakuntzakoek artisten azalpenen eta zuzeneko ikuskizunen aldeko apustua egin dute, hitzaldi eta mahai-inguru teoriko edota akademikoak murriztuz.

Gogoeta egitea helburu

Sergio Alvarez eta Alberto Arce artista espainiarrek, Chené Gonzalez eta Alba Sanfeliu katalandarrek, Guatemalako Daniel Hernandez-Salazarrek, Orla Hasson irlandarrak eta Claudia Mejia kolonbiarrak parte hartuko dute topaketetan.

Horiekin batera euskal ordezkari legez Iñaki Arzoz eta Josu Castillo 'Txiski' artista nafarrak ere gonbidatu dituzte.

Antolatzaileen esanetan, bederatzi artista horiek, euren konpromiso sozialetik abiatuta, munduko toki ezberdinetako errealitateen gaineko gogoeta egitea dute helburu.

Topaketetetan parte hartuko duten artista guztiak artearen bitartez gatazkarekiko sare alternatiboak ezartzera konprometituak daude.

Artea eta bakearen inguruko topaketak urte birik behin antolatzen dituzte Gernika Gogoratuzeko Alex Carrascosak eta Ahmadul Haquek.

2007an 'Gernikatik Guernicara' izan zen topaketaren leloa. Edizio hartan arteak 1937ko bonbardaketak artean izan duen eragina eta horrek gatazken konponketetan izan dezakeen eragina aztertu zuten hainbat adituk.

Artearen eta Bakearen Topaketak urte birik behin antolatzen dituzte Carrascosak eta Haquek.

EGITARAUA

Aukeran dantza konpainiaren ikuskizuna izan ezik (hamabi euro) topaketen baitako beste ikuskizun guztiak doakoak dira.

Urriaren 9tik 15era

Argazki instalazio publikoa herritik zehar. Daniel Hernandez-Salazarren (Guatemala) ' Angel callejero '.

Urriaren 13tik 14ra

18:00. Artean eta Bakean Adituen I. Topaketa .

Urriak 15, eguena

18:00. Hasiera ekitaldia. Rikardo Abaunza kultur etxeko zuzendariak, Iratxe Momoitio Bakearen Museoko zuzendariak eta Maria Oiaguren Gernika Gogoratz Bakearen aldeko aztertegiko zuzendariak parte hartuko dute.

Ostean. Irekiera-hitzaldia: Alex Carrascosa (Artea eta Bakea saileko arduraduna eta Gernikako Artearen eta Bakearen IV. Topaketaren komisarioa) eta Ahmadul Haque (Artea eta Bakea saileko laguntzailea eta Gernikako Artearen eta Bakearen IV. Topaketaren koordinatzailea).

19:30ean. Erakusketa. Sergio Alrez Ferreraren (Espainia): ' Mensajes desde el muro ' . Elai-Alai aretoan.

20:00etan. Residui Teatroren (Italia): ' OO-Clown-Mision desarme ' ikuskizuna, Elai-Alain.

Urriak 16, barikua

10:00-13:30. Argazkilaritza eta zinema, Elai-Alai aretoan.

- Daniel Hernandez-Salazar (Guatemala): ' Para que todos lo sepan ' .

- Sergio Alvarez Ferrera (Espainia): ' Mensajes desde el muro ' .

- Alberto Arce (Espainia): ' Cuando no queda ningun lugar donde refugiarse ' .

16:00-19:00. Arte plastikoak, Elai-Alai aretoan.

- Alba Sanfeliu (Katalunia): ' Los conflictos armados dibujados ' .

- Chené Gomez (Katalunia): ' Felices accidentes ' . 20:30ean. Zine-Foruma, Lizeo Antzokian. Alberto Arcek Gazako (Palestina) osasun larrialdietarako taldeekin batera Israelen erasoaldian zehar (2008 abendua-2009ko urtarrila) grabatutako irudien proiektzioa.

Urriak 17, zapatua

10:00-13:30. Antzezlanak eta performakia, Elai-Alai aretoan.

- Orla Haason (Irlanda/Euskal Herria): ' Gatazka bortitzetako biktimengana hurbiltzen gaituen partaidetza-antzerkia ' .

- Iraki Arzoz (Euskal Herria): ' Uharteko entzute-tailerrak ' .

- Josu Castillo ' Txiski ' (Euskal Herria): ' Hitz egiten duen entzutea-Auzo batzarraren eztabaida ' forum-antzerkia.

- Moderatzailea: Raul Araujo (Brasil).

16:00-19:00. Musika, Elai-Alai aretoan.

- Alba Sanfeliu (Katalunia): ' La musica y la paz ' .

- Claudia Mejia (Kolonbia): ' La musica en la paz: una balsa entre dos aguas ' .

20:30ean. Aukeran dantza konpainiaren ' Gernika: mihise gainean dantzan ' ikuskizuna, Lizeo Antzokian.

Urriak 18, Domeka

10:00-13:30. Payasos sin Fronteras-en ' Desaguisados ' ikuskizuna,

17:00etatik aurrera, Lizeo Antzokian.